

BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

2462

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 22koa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2024ko azaroaren 12ko Aginduan aurreikusitako hautaketa-batzordearen osaera. Agindu horren bidez, dirulaguntzen deialdia egiten da 2024-2025 ikasturtean ikasleen nazioarteko mugikortasun-programak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateentzat, unibertsitate-ikastetxeentzat eta goi-mailako arte- eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeentzat.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2024ko azaroaren 12ko Aginduaren bidez, 2024-2025 ikasturtean ikasleen nazioarteko mugikortasun-programak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateentzako, unibertsitate-ikastetxeentzako eta goi-mailako arte- eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeentzako dirulaguntzen deialdia egin zen.

Agindu horren 12. artikulua ezartzen duenez, eskabideak aztertu, proposatu eta ebazteko, hautaketa-batzorde bat eratuko da. Hala ere, gerora sortutako eta deialdi honekin zerikusirik ez duten inguruabarrak direla-eta, izendatutako pertsona batzuek ezin dute prozedura horretan parte hartu, eta, horregatik, haien ordezkioak izendatu behar dira.

Hori horrela, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, behin betiko ebazpen-proposamena egiteko ardura duen organoaren osaera ezartzeko.

Azaldutako guztiagatik, eta oro har aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2024-2025 ikasturtean ikasleen nazioarteko mugikortasun-programak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateentzako, unibertsitate-ikastetxeentzako eta goi-mailako arte- eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeentzako dirulaguntzen deialdiko hautaketa-batzordea osatuko dutenak izendatzea.

– Unibertsitateetako arduradun M.^a Eugenia Santos Urdiain, batzordeburu gisa, edo ikerketa-arloko programen arduradun Ainhoa Goienetxea Murgiondo, ordezkio gisa.

– Unibertsitateetako teknikari Ane Ayastuy Gallastegui, batzordekide eta batzordeko idazkari gisa, edo unibertsitateetako teknikari Pavel Viñas Zapirain, ordezkio gisa.

– Unibertsitateetako teknikari Ibai Arruza Crespo batzordekide gisa, edo administrazio orokorreko teknikari M.^a Nieves Rodriguez Plagaro, ordezkio gisa.

Bigarrena.– Agindu hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 22a.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.